3. AGIRIA

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZKO LIZITAZIOA, “BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN HORNIDURA-LABORATEGIAREN BRUKER MASA-DETEKTAGAILU HIRUKOITZ KUADRUPOLO BATI ATXIKITAKO GAS-KROMATOGRAFIAKO EKIPOAREN MANTENTZE-LANEN ZERBITZURAKO”.

1. *XEDEA*

Lizitazio honen helburua da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) hornidura-laborategiaren (Beteluriko EUTn dago) gas-kromatografia bidezko espektrometriadun masa-detektagailu hirukoitz kuadrupoloaren sistemaren (BRUKER enpresarena da; aurrerantzean, GC/MS/MS) parte diren ekipoen mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileen zerbitzua kontratatzea.

2. *SISTEMAREN DESKRIBAPENA ETA BETEKIZUN OROKORRAK.*

GC/MS/MS sistema kromatografikoa osatzen duten ekipoak, lizitatutako mantentze lanen kontratuaren arabera, honako hauek dira:

- EVOQ GCMS TQ EI 456 masa-espektometroa (serie-zk.: 39400000800272)
- GC-456 gas-kromatografoa (serie-zk.: 459MS01013)
- PAL3 injektore automatikoa

3. *KONTRATATUTAKO ZERBITZUAK.*

GC/MS/MS sistema kromatografikorako kontratatutako urteko prebentziozko mantentze-laneko zerbitzua, oro har, ekipoaren eta haren osagarrien funtzionamendu egokia ziurtatzeko eta bermatzeko beharrezkoak diren eragiketa guztiak garatzean eta gauzatzean datza, helburu hauei jarraikiz:

- Ahalik eta energia-errendimendurik onena.
- Sistemen funtzionamendu-baldintza optimoak.
- Ekipoen bizitza erabilgarria laburtzea saihestea.
- Kanporako emisio minimoak (akustikoak, kutsatzaileak, etab.).
- Mantentze-lanetan azken teknika prediktiboak erabiltzea, akats bati aurrea hartzeko.

Urteko prebentziozko mantentze-lanean egin beharreko eragiketak dokumentu honetako “Prebentziozko mantentze-lanen deskribapena” apartatuan zehazten dira.

Kontratatutako mantentze-lan zuzentzaileen zerbitzuak matxuren abisuen ondorioz egin beharreko esku-hartze guztiak biltzen ditu, sistemaren funtzionamendu egokira itzultzeko beharrezkoak direnak.

Urrutiko diagnostikoa egiteko aukera eskaini beharko da, matxurak izanez gero edo ekipoak zehaztapenetatik kanpo funtzionatzen badu.

Hauek hartuko ditu barne: eskulan mugagabea, garraio-denbora eta horri lotutako gastuak eta konponketarako beharrezkoak diren pieza guztiak, baldin eta kontsumigarriak ez badira eta laginekin zuzeneko kontaktuan ez badaude.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko izendatzen dituen langileek fabrikatzaile izateko kualifikazioa izan behar dute mantentze-lanak eta konponketak egiteko, eta gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatu behar dute horrelako jarduketetan. BBUPk beretzat gordetzen du kualifikazio eta esperientzia hori bermatzen duen dokumentazioa eskatzeko eskubidea.

Adjudikaziodunak beharrezkoak diren baliabide material espezializatu guztiak izan beharko ditu kontratua gauzatzearen ondoriozko zereginak behar bezala gauzatzeko.

Mantentze-lan guztiak ekipoa dagoen lekuan egingo dira, hau da, Beteluriko EUTn dagoen hornidura-laborategian.

Egindako berrikuspen guztiei buruzko txostenak egingo dira, bai mantentze-lanei buruzkoak, bai konponketei buruzkoak, eta trazatu ahal izango dira.

4. PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN DESKRIBAPENA

Sistemaren hasierako egoera begiratu eta gero, GC/MS/MS kromatografia-sistema osatzen duten ekipoetako bakoitzari egin beharreko prebentziozko mantentze-lanak hauek izango dira:

- GC-456 kromatografoaren mantentze-lanak:
    - Ekipoaren egoera orokorra berrikustea eta garbitzea
    - Injektoreak berrikustea
    - Mantentze lanak eta egiaztapenaren emaitzak dokumentatzea.

- EVOQ GCMS TQ EI 456 masa-espektrometroaren mantentze-lanak:
    - Ekipoaren egoera orokorra berrikustea eta garbitzea
    - EI/CI iturria eta QUADRUPOLOS berrikustea
    - CIDV berrikustea
    - Azken doikuntzak eta egiaztapenak egitea (konposatuen denboren eta eremuen erreproduzigarritasuna egiaztatzea ahalbidetuko duen patroi baten injekzioa barne).
    - Mantentze-lanak eta egiaztapenaren emaitzak dokumentatzea.

- PAL3 injektore automatikoaren mantentze-lanak.
    - Mantentze-lanak eta egiaztapenaren emaitzak dokumentatzea.

- Datu-sistema egiaztatzea
    - Egiaztapenaren emaitzak dokumentatzea.

Ezarritako mantentze-protokoloari jarraikiz, sistemak ahalik eta hobekien funtzionatzen duela eta fabrikatzailearen errendimendu-zehaztapenak betetzen dituela ziurtatzeko behar diren doikuntzak egin eta egiaztatu behar ditu.

5. FUNTZIONAMENDU-PROZEDURA

GC/MS/MS kromatografia-sistemaren prebentziozko mantentze-lanerako, kontratatutako enpresak balizko datak proposatuko ditu, eta Laborategiak egokienak hautatuko ditu, laborategiko lan-karga kontuan hartuta ohiko analisi-jarduerari ahalik eta gutxien eragiteko. Data adostu ondoren, BBUPren kontratu-arduradunak harremanetan jarriko ditu bi enpresetako prebentzio-zerbitzuak, BBUPren instalazioetara sartzeko baimena izapidetzeko.

Prebentziozko mantentze-lanak egin ondoren, kontratistak lan-partea eta sistemaren eraginkortasuna bermatzen duen ziurtagiria emango ditu. Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da ekipoa kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian kontserbatzea, eta ikusitako edozein gorabehera jakinaraztera behartuta egongo da.

Kontratu honen mantentze-lanak egiteko behar den material suntsikor guztia behar besteko aurrerapenarekin bidali behar da laborategira, berrikuspenaren egunean eskuragarri egon dadin.

Prebentziozko ,antentze-lanean zein zuzentzailean erabilitako ordezko piezak ekipoaren fabrikatzaileak (BRUKER) baimendutako edo hornitutako pieza originalak baino ez dira izango.

Kontratistak helbide elektroniko bat eta zerbitzu teknikoarekin harremanetan jartzeko telefono bat eman beharko ditu matxuren, kontsulten edo laguntza teknikoko eskaeren berri emateko. Gorabehera erregistratu ondoren, enpresa adjudikaziodunaren teknikari bat BBUPren arduradunarekin harremanetan jarri beharko da, egoerari eta beharrei buruzko informazio xeheagoa izateko eta, ahal denean, berehalako neurri zuzentzaileak emateko. Horretarako, sistemaren urruneko ebaluazioa egin beharko du, edo, behar izanez gero, bisita bat programatu. Gorabehera behar bezala konpontzeko egindako ekintzak dokumentatu egin behar dira.

Matxuraren bat izanez gero (mantentze-lan zuzentzailea), lau ordu baino gutxiagoko telefono-zerbitzua bermatu behar da, eta konpontzeko bisita egiteko bost lanegun igaro behar dira gehienez, BBUPk gorabehera jakinarazten duenetik aurrera.

Enpresa lizitatzaileak prebentziozko mantentze-lanak egingo ditu ohiko lanaldian, astelehenetik ostiralera, goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak arte.

Kontratatutako enpresak isilpean eta konfidentzialtasunez gorde beharko ditu kontratua gauzatzean jakiten dituen datuak edo informazioak, eta, horretarako, Datuak Babesteko Lege Organikoan (DBLO) jasotako xedapenak bete beharko ditu.


Betelurin, 2026ko ekainaren 23an

Kontratuaren zuzendaria



Sin.: Maite Cabañas Alonso

Laborategiko zuzendariordea



Sin.: Elena Aspichueta Lopez